

Joxemartin Apalategi Amalur semea

(Joxemartin Apalategi, son of the earth)

Etxebarria Ayesta, Juan M.

Deustuko Unib. / Univ. de Deusto. Fac. de Filosofía y Letras.

Dpto. de Lenguas Modernas y Estudios Vascos.

Avda. de las Universidades, 24. 48007 Bilbao

metxeba@fi.deusto.es

BIBLID [ISBN: 978-84-8419-218-3 (2011), 303-318]

Joxemartin Apalategi bere jaioterria unibertsitatera eraman nahi zuen gizona izan zen eta argi zuen gauza bat bizi ez dugularik ezin dugula ezagutu. Besteak beste, On Jose Migel Barandiaranen bidea jarraitu zuen beste askok egin dugun bezala, Leipzig-eko Unibertsitateko Wundt irakasleak J. M. Barandiarani esana gogoratzuz: "Kultura batere ez duzu konprenituko sekulan, bizi ez baduzu zerorrek".

Giltza-Hitzak: Euskal Herria. Euskera. Ohiturak. Herri-aitorra. Barandiaran. Etnografia. Lekukotasuna. Belaunaldiak. Zubi-lana. Etorkizuna.

Joxemartin Apalategi fue un hombre que quiso llevar a su pueblo a la universidad y que tenía claro que no se puede conocer una cosa sin vivirla. Siguió, por ejemplo, como tantos otros hemos hecho, el camino de Don Jose Migel de Barandiaran, recordando lo que le dijo el profesor Wundt de la universidad de Leipzig a J. M. de Barandiaran: «Nunca comprenderás la cultura, si no la has vivido tú mismo».

Palabras Clave: País Vasco. Euskera. Costumbres. Tesoro popular. Barandiaran. Etnografía. Testimonio. Generaciones. Tender puentes. Futuro.

Joxemartin Apalategi fut un homme qui a voulu mener son peuple vers l'université et qui était persuadé que l'on ne peut pas connaître une chose sans la connaître. Il a suivi, par exemple, comme tant d'autres personnes l'ont fait, le chemin de Don Jose Migel de Barandiaran, en se souvenant de ce que lui avait dit le professeur Wundt de l'université de Leipzig à J. M. de Barandiaran : « Jamais tu ne comprendras la culture, si tu ne l'as pas vécu toi-même ».

Mots-Clés : Pays Basque. Euskera. Coutumes. Trésor populaire. Barandiaran. Ethnographie. Témoignage. Générations. Construire des ponts. Futur.

Zeberiko puntatik nator, eta pozik etorri ere, Joxemartin Apalategi Amalur semearen omenaldira. Anton Erkoreka lagunak gonbidatu ninduenean, atoa zabaldu zitzaidan bitargi bat baietz esateko. Bitargi hori On Jose Migel Barandiaran, gure maixu on eta jakintsua.

Joxemartinekin ez nuen izan harreman pertsonal handirik, bai oster bere anaia Jokin eta Maite Idirin nire herritarrekin.

Hitzaldi hau gertatzerakoan, buruari ere bai baina batez ere neure bihotzari utzi diot berba egiten, besteak beste, horixe irakatsi zigulako gure maixu On Jose Migel Barandiaranek.

Joxemartinen bizitza arakatzen hasi naizenean, HABE aldizkariak 1984eko abenduan 54. alean dakarren esaldi batek jo dit bihotza. Aikomen esaldia: "Joxemartin Apalategi: bere jaioterria unibertsitatera eramane nahi zuen gizona". Bere doktorego tesia egin osteko elkarriketaren izenburua da eta esaldia garrantzizkoa bada barruan datorrena zertan esanik ere ez.

Elkarriketa egin zionak, besteak beste, haxe galdera hau egin zion:

– Zergatik aukeratu zenuen Ataun, zeure jaioterria, lan hori egiteko?

Eta Joxemartinek erantzun:

– Gauza bat bizi ez dugularik ezin dugu ezagutu. Eta nik Ataun ondo bizitu dut. Hori Joxemiel Barandiaranek erakutsi zidan. Postura antropologiko honen aitzindaria Alemaniako Wundt izeneko antropologoa izan zen. Horrek Antropologia Psikologikoa sortu zuen eta ikasle bezala tartean Barandiaran izan zuen. Gauzak ezagutzeko bizi egin behar dira. Hori esatea gogorra da. Nik esfortzu latza egin dut Ataun ezagutzeko, hasi neure burutik, gero neure familiatik eta Ataun osoa harrapatu arte.

Berbok irakurtzerakoan guztiz identifikatuta aurkitu dut neure burua hitzok neureak balira bezala. Esan dudanean hau baieztatzeko guazene nire neure Doktorego Tesira ("Zeberio Haraneko Euskararen Azterketa Etno-Linguistikoa") eta aikomenzan Deustuko Unibertsitatean, 1988an, Doktorego Tesi honen defentsan esan nituen hasierako berbak, helburuak eta ondorioak:

Euskal Herriko euskara biziaren liburu zaharra zabaldu dudanean, beleak bere haitzera egiten duen lez, Zeberiko orrialdera jo dut geure bertoko euskal altxorren barrurik harako azterketa etno-linguistikoa egin nahian etorkizunera bideratzeko.

Zeberiko herrian darabilgun esaera zahar batez hasi nahi dut oraingo hone-tako eginbehar hau eta honela dio: "Min bako arrana ugerra(k)tx(y)aten yok". Esaera honek diona egia izaten bada ere, Zeberiko euskararen "arranak" bada-ragoio eragon be oraindik, ugertu barik eta gogatsu bere betiko arrantotsean.

Zeberiko euskera, beste euskalki, azpieuskalki eta aldakien ondoan jartze-an, Axularren pasartetxo hau datorkit gogora:

Badakit halaber ezin eda naitekeiela euskarako mintzatze molde guztietara. Zeren anhitz moldez eta diferentki mintzatzen baitira euskal herrian... Finean bat bederak bere gisara, anzura eta moldera. Eztituzte euskaldun guztiek legeak eta azturak bat, eta ez euskarazko mintzatzea ere...

Axularrekin bat nator eta Zeberioko hizkuntz-prozesu bizia aztertzeraz On Jose Migel Barandiaranen aholku batek bultzatu nau. Dozena eta piku urteotan, bere zuzendaritzapeko Bizkaiko Etniker taldekidea naiz eta sarri entzun diot Leizpzig-eko Unibertsitateko Wundt irakasleak berari esandakoa, hauxe:

Alferrik zabilta, zuen problema denak kulturako problemak dira ta. Kultura bate-re ez duzu konprenituko sekulan, bizi ez baduzu zerorrek. Liburuetatik ez duzu ondo ikasiko. Bueno ba, -esan nion-(Barandiaranek), kultura ulertzeko, bizi egin behar bada, nik bizi dudana kultura bakarra euskal kultura da eta halaxe abiatu nintzen.

Ni neu ere, neure Zeberiora abiatu naiz, Zeberioko seme naizelako eta bertoko kultura, hizkuntza barruen dela, inongoa baino *hobeto bizi dudalako*.

On Jose Migel Barandiaranen irakatsietatik bide bi jorratu ditut: batetik hizkuntzalaritza Doktorego Tesitik hasita eta bestetik Etnografia.

Lehenengoari dagokionez, aikomen defentsako bitargi batzuk:

1. TESI HONEN HELBURU OROKORRA

Hizkuntzaren komunikabide prozesua psikofisiologikoa izanik, gizarteko elkar komunikazioan era askotako aldaketak sortu dira historian zehar eguneroko hizkeraren berezko lege ekonomiko, eufoniko eta transmisio ohiturazkoak bitarteko izan direlarik.

Herri-euskera, jatorrizko sistema idatzitik aldatuz edo urrunduz joan da, herria, analfabeto izan delako, baina hor dago, luzarorako ez bada ere, bizirik eta aberats.

Gaur, euskera baterantz joan nahi da eta horixe litzateke euskeraren bizibidea, baina horretarako ezin dugu dagoen dagoeneko herri-euskera bizia gehiagokobarik baztertu, bizirik dituen edertasunak jaso eta erabili baino.

Horixe berori egin nahi izan da doktorego tesi honetan. Zeberio haraneko euskera ahal denik eta zehatzen jaso eta aztertu, etorkizuneko euskeraren lagun eta argibide izan dadin batasunaren bidean.

2. ONDORIOAK

Zehaztasunari begira eta nahastu egin ez egiteagatik, aztertutako alor bakoitzaren azken aldean bere ondorio puntualak agertzen badira ere, oraingo hone-

tan, gainbegirada bat emanaz eta laburbilduz, hona hemen tesian zehar aipatzen-aipatzen etorri garen ondorio orokorrak.

1. Norberak aztergai izan duen herri-euskera titirik harakoa izan arren eta metodori zehatzenak erabilia ere, muga handiak aurkitzen dira ahozko euskera biziaren baliabide mugagabeak jasoteko. Azken baten, pertsona bakoitza, bere berezkotasunez beterik bizi da etengabeko hizkuntz-prozesu baten barruan.

2. Etengabeko hizkuntz-prozesu horretako ahozko euskera bizian dauden NIBELAK, egon ere badaudelarik, arruntenetik hasi, irudi-topikoz beterikoaz jarraitu eta goi mailako landuenera heldu arterainokoak, jaso beharrekoak dira tokian tokiko eta ahal denik eta zehatzen bizi dugun egoeraren Urgentziak eraginda, izan ere, euskal literatura idatziak ez duelako jaso euskal kulturaren izate guztia. Horregatik, aldaketa sozio-ekonomiko-kulturalaren eraginez eta belaunaldiz belaunaldi bidean zer bait uztea bidezko denez, ez da erreza ahozko euskera biziaren izate osoa jasotea baina mugaz aparte metodologia egoki bat erabilteaz gain, Euskadi luzeazabalean norberak benetan bizi duen lurraldeko euskera mota biziaren altxor-jasoketa egitea behar beharrezkoa da aberastu nahi bada guztiok gura dugun etorkizuneko euskeraren batasuna.

3. Euskera batuaren proiektua, idatziari begira egin da baina oraindik batzeko dagoen batu horren ahozkeraren emari dago proiektu horren sabelean eta ez dakigu noiz eta zelan jaioko den, asko hitzun berri edo ez hain berri, idazkeraren ahozkeraren berdineko zehazpena egiten hasita badaude ere. Aztergai izan dudana herri-euskeraren, hain horren, ikusten dira ikusi ere hitzunen berezko lege fonetikoak eta euren eraginezko lege fonologikoak. Herriak, historian zehar, ahozkeraren bide batzuk egin egin ditu bere berezko legeen arabera. Zeberioko ondorioak hor dira eta beste herrietakoak ere ateratu egin behar lirateke eta ondorio guztion bateratzubideak erabiltzen hasi, idatz eta Mintz, bikiak izan arren, bakoitzak bere nortasuna duelako.

4. Euskeraren batasunari deusala, baten baino sarriagotan, zertan ez dela, hainbat mailegukeria ere entzuten da Euskal Herriko haronakoan, Zuberoak duena Zeberioak ez badu, hartu egin behar du eta Zeberioak duena Zuberoak ez badu, beste hainbeste. Horretarako, herriz-herri bizirik dagoena ondo ezagutu behar da eta denok elkar aberastu benetako batasuna zainduz. Ez-jakinkeriazko "tabula rasa"rik inondik eta inora ere ezin da egin. Zeberioko herria ere, Mendebaldeko ertzean egon arren, Euskadi da eta oraindino zorionez EUSKALDUNA.

5. Hizkuntza bizia, bizitzarekin batera doa eta herri-bizitzak ez du hizkuntza arazoa planteatzen. Herria BIZI da, eta gizarte-harremanetarako, beste tresna batzuen artean hizkuntza darabil. Zelango hizkuntza? Ba, ahalik eta ekonomikuena, eufonikoena eta belaunaldiz belaunaldiko transmisio-ohiturako galbahetik eralgitakoa. Azken baten, bizitzako egoera ez berdin bakoitzerako "béharren" duena. Hortxe, bizi bizian da hizkuntzari neurriak hartzea, gero, "Balizko oleak burdinarik ez".

Tesi aurkezpen hau amaitzeko, hasieran lez, neure-herrira noa beste esatera baten bila: "Gurasoak dana dotzo sor semeari". Nik neuk ere, euskeraren guraso

lez, nire neure gurasoengandik hartutako hizkuntz-altxorra ZOR diot semetzat hartzen dudana ETORKIZUNARI.

"Saar on in daitela" (zahar on egin daitela) (Zeberioiko beste esaera zahar bat).

Bigarrenari dagokionez, hots, Etnografiari, horra hor Etniker taldean egindako inkestak baina horrezaz gain beste alor batzuk ere aztertu ditut *Etniker* aldizkarian argitaratutako mito, ipuin eta esaundetan oinarrituta.

Zeberiotik hasi eta Gorbeialdean zehar bildutako mito, ipuin eta esaundekin liburu eder bat osatu nuen "Gorbeia inguruko Etno-ipuin eta esaundak" izenburupean. Liburuak nire izena darama, bilketa lana neuk egin dudalako, baina liburuaren iturria herria da, herriaren jakintza. Horra, horraxa bialdu ninduen Barandiaranek, nik neuk ezagutzen dudana herrira, Joxemartin Apalategi Ataun bere herrira joan zen bezala.

Hasieran esan dugu Joxemartin Apalategik bere jaioterria Unibertsitatera eramana nahi zuela eta nik neuk ere beste hainbeste egin dut Deustuko Unibertsitatean eta eskola sortu, nire Tesiaren atzetik beste asko bideratu ditudalako altxor horretara, beti ere, berandu baino lehen, jaso eta ikertzeko euskararen aberasbiderako.

Horrezaz gain beste alor bat ere landu dut: Herri Literatura.

Etnografian lanetan nenbilela, galdera hau egin nion neure buruari: herriaren altxor eder hau zergatik ez eraman literaturara ikertzaileez gain beste ikasle, irakasle edo eta geinetiko guztiak ere aberasteko?

Pentsatu eta egin. Hizkuntza, bizitzaren ispilu dela esten da eta herri aberatsak hizkuntza aberatsa duenez, genero ezberdinak hartu eta idazten hasi nintzen eta gaur ere badaragiot: ipuinak, eleberrak, fabulak, esaundak, bertsoak, esaerak eta abar. Ohiturekin ere beste hainbeste, eta hor dago asko gustatu den "Euskal Urtea Ohituraz Betea" nire liburua.

Gure aurrekoen mundua gaurkora ekarteak bere zailtasunak ditu leku-dendorak aldatzen datozelako baina etorkizunean ere euskaldun izaten jarraitu nahi badugu zeozer egin baharko dugu betiko euskal nortasuna galdu ez egiteko. Bide horretatik, nire etnografia zein literatura lan guztietan hiztegi luze bat agertzen da eranskin argigarri bezala aberastasunaren zailtasunak errazteko eta haragoan ere erabilgarriak izateko.

On Jose Migel Barandiaranek zenbat bider esan zigun, haxe: herriko daturik txikiena ere ez galdu, denak balio du eta! Joxemartin Apalategik ere ondo zekien balio hau.

Etorkizuna geure esku dago. Gaurkook zubi-lana egin behar dugu aurrekoa gerora bideratzeko eta prosaz ezeze, koplaz ere adierazi nahi dut egin behar

garrantzitsu hau. Aikomen “Euskal Urtea Ohituraz Betea” nire liburuaren azkenean datorren kopia:

Itsasoan handi ura
Basoan ugari zura,
Euskaldun izan, euskaraz bizi
Zainduaz euskal kultura.

Eta teorian ez geratzeko herririk harako altxorrera joko dut nire Etniker lane-ko pare bat pitxilor a aurkezteko:

- a) Untzetapikuko harri-bolen mito eta historia.
- b) On Jose Migel Barandiarani 1975ean kontatu nion lehenengo mitoa.

3. ERREALITATETIK MITORA

3.1. Untzetapikuko harri-bolen “Gorbeia inguruko etno-ipuin eta esaundak” liburuan

(Egilea Juan Manuel Etxebarria Ayesta. Labayru-BBK. Bilbao 1995). Oharrak: 1) Liburuan, Gorbeia inguruko 50 berriemaile datoz eta liburuko ipuin bakoitzaren ondoan berriemailearen zenbakia eta kontatutako ipuin edo ipuine-na dago. 2) Liburuan, ipuin-esaundak, ikerketa lanaz gain, hiru erataraz agertzen dira: a) etnotestoa, b) bertsio etimologikoa, c) gaztelarazko laburpena.

Hemen, Untzetapikuri dagozkion berriemaile eta guztizko etnotestoak bakarrik eskeiniko dira, laburbidean jakina.

3.2. Jentilak Untzetapikun (19.2)

Berriemaile: Juan Akesolo, Zeberioko Bertzuten auzuneko. Ezkondua. Lantegian lanean erretiratu arte. Grabaketa, 1979an, 64 urte.

Untzetapikun egoten sirean yentilek, da Untzetapikun kadera bat imini da beste bat Mandoin (batetik bestera 10 kilometro inguru) da, Arkulandako arri-pausutan ure edaten auden.

Da Untzetapikun, Untzetabepen daos yentil-bolak. Ekarri audesan Miraballesera, fabrika barrira bidiru, da besto bat egon san Aldeko Ziprianon kortan, da, oindiño oin bost edo sei urte Arri Anditi Atzabalerako bide aspian egote ixinde bat, alango yentil-bola bat...

Untzetapiku pikuen dao barres atxean lekue ta yarri leku moduko bat. Da inguruen dauke yentilen balkoya esatotzien orma bat einde.

3.3. Jentilak: laiñoa eta euren azkena (20.1)

Berriemailea: Zipriano Etxebarria, Zeberioko Bertzuten auzunekoak. Ezkondua. Nekazaria. Grabaketa, 1979an, 67 urte.

Yentilek, Untzetabeti Mandoire pelotan itaudien da gero andi suntu siren yentilok, urtotzien LAÑOAK, da lañoak urten otzienean:

“Gureak in dau, akabau de”.

Orduen suntu siren yentilok, akabau sireala.

Arri-bolak bost edo sei arroakoak, karretillan ekarri gendusen Kallera (Miraballes, “Kalle” da Zeberiostrantzatz) eroan gendusen, kareatzeko arriek sian.

Untzetabepen begoan txabola bat, yentilek inde. Oin be badao errastuen bat. An aukien txabolea, an dao atxa ebagite. D'orma(k)p(b)egosan bastante suntuak. Oindo akabau baritao, oindo markataos.

3.4. Jentilak harri-bolan Untzetabetik Mandoiara (21.2)

Berriemailea: Damiana Etxebarria, Zeberioko Bertzuten auzunekoak. Ezkondua. Nekazari eta etxeandrea. Grabaketa 1979an, 67 urte.

Da ba jentilena barris i jentilek emetik ibiltzen siala bai labeak erreketetan da, artoipadao labean, labean kuitze erosten da orreik i gausok kontetoskusan.

D'orti Untzetabeti Mandoire itaudiela pelotan da bolan, da bolak, gure Felipek, nebeak, Untzetabeti Mirallesiara bajatu situzen. Selango bolak! baye ederto inde, seinde petotak (g)arbi garbi daosen modun. Da kapritxo usabak e Mirallesiara, len egoan usaba, surok e estose akorduripe auko, ori Poberrenak, bajetako. Da gixonakas yoa da bajatu situesan Mirallesiara. An ixingoire, oin errekarra bota baitues be estaipaie.

Da, ba, olangoxe gausak, besterik ser dakipa nik orrinik. Personajeak segun esataudien, andiek, da begi bet. Da nik estait entzunde badauket emeti be (kokotera eskua eroanaz) beste bat aukitaudiela ostakoa be ikusteko...

Ibili, gaubes, orrikaubes, egunes esisen ikutzen e arean olangorik da gaubes ibili ba sulori-sulo bastarra(k) topetan gosea aukitaudien seguru edo yateko jeneroa topetan da esataudien ibiltzen siala gaubes.

3.5. Jentilak harri-bolaka mendirik mendi Orozkon (33.3)

Berriemailea: Petra Etxebarria, Orozkoko elbarrengoak. Ezkondua. Etxekoandrea. Grabaketa, 1983an, 86 urte. Oharra: ipuin hau, beste asko bezala, liburua argitaratu eta geroagoan grabatu eta transkribitua da.

Aibere kontue isingo da, baie egun beten arrastegi osoa emon i audin arri-bolak a jaurtiten orrik i Untzetapikuko jentilok eta Arrolako Santa Mañe puntakoak.

Batetipectera lau(t)kilometro ongo dire ta atera kontuik i selango arriotza aterako audin.

Da, ba, alangonbaten, Untzetapikuko jentil kankallo batek anka bat imini auen Untzetapikun eta bestea Santa Mañeko tontorreran da Torrelandako errotako andaparea sikitu lelengo surrupadan.

Orduin, Santa mañeko jentil indertzu betek e, artu arri-bola endemoniño bat eta Untzetapikure inean bota auen eta, joño, punta puntan jo ta satie kendu i otzein Untzetapikuko puntetari.

Orregaiti ekosi leike Untzetapikun alde bateko oskea, sererantza, Aibelaberantzako partean.

Ai bere bildurgarrie isingo san e! Ba, olantxik (g)aldu i auen Untzetapikuk u tortor satie.

Oin antenea imini deuskui punta puntan eta kantarak aspian. Gaur u estao lengorik.

4. UNTZETA-MENDIKO GAZTELUAZ BITARGI HISTORIKOA

4.1. Unzueta

Unzueta es recordar la época de los Parientes Mayores o las batallas de los Gamboinos y Oñacinos. Unzueta aparece escrita como Untzueta y como Untzeta en Euskera. En Bizkaia, cerca del límite con Álava entre Llodio, Zubiaur, Orozko y Zeberio en medio de BI-2522 y BI-3524 se encuentra el UNTZETA Mendi de unos 766 mts. El más famoso y poderoso castillo de Untzeta (Unzueta) está situado en las peñas de dicho monte. La leyenda remonta el castillo al siglo VI, y añade que fue derruida por los vecinos el año 935. Reedificado para soportar cercos uno el 12-08-1277 por Alfonso el Sabio, en 1289 por Diego López de Salcedo enviado por el rey Sancho el Grande, en 1334 por Alfonso XI y en 1358 el rey Pedro I el Cruel mientras perseguía a su hermano D. Tello. Este último lo derribo en 1357 (Obtenido de "<http://es.wikipedia.org/wiki/Usuario:UNZUETA>").

5. UNTZUETATPIKUKO HISTORIA MITIFIKATUA LITERATURA

5.1. Iaun Zuria

Eleberria. Juan Manuel Etxebarria Ayesta. Ibaizabal, Zornotza 1997. Testu zati hau: 133-135 orrialdeetan.

Egun batzuk Altamira eta inguruetan eman ondoren, udagoieneko uztaroz gero, astitsu zebiltzanez, lekobidek aste beteko joan etorria egin nahi zuen Izarri Ganekogorta eta ingurumariak erakusteko.

Pentsatu eta egin. Izarrek ez zion ezetzik esan adar edo bozina-mendi bakoitzean inon diren kontuak ikasten bait zituen.

Ganekogortara orduko, Zeberiotik zehar zihoazen, Untzeta, Zeberio eta Orozko bitartean dagoen mendi punta politerantz. Bidean Aibelabe tontorraren hegoaldeko artadua zeharkatu zuten, aurreragoan lurbel hezoetako beresian atsedean apur bat hartu eta Orozko eta Zeberioko ergoienetik elbarrenerako ikuspegi zoragarria gozatu.

Behin Untzetaraz gero, Lekobidek hango hangotasun guztiak erakutsi zizkion Izarri, besteak beste, haitz bizian egindako egillamua eta bertan zegoen trabukoa.

Izarrek ez zuen halakorik inoiz ikusi eta bere harridura eta guzti galdetu egin zion Lekobideri:

– Zertarako den baino ez da hau tramankulu hau?

– Hori?- erantzun zion Lekobidek-, aditu ondo, Izar, Orozkotik aurrerako Urduñarako bidean, “Malato” deritzon arbola bat dago eta horraxerainokoa da gure lurraldea. Erbestekoren bat agertzen denean, guk, baizkaitarrok horraxeraino defenditzen dugu geurea eta behin Malatoraz gero, armak bota. Baina, badaezpada, ondo datorkigu hemen Untzeta mendian trabuko hau eukitea. Trabuko honekin, kare-harrizko harri-bolak botaten dira txirran edo bilinbolan mendia behera, inbaditzailea nondik nora, ba harri-bolak haraxe. Herritar askok jentil-bolak direla uste du, baina ez, defentsa-harriak dira.



Juan Manuel Etxebarria Ayesta. In: *BASAJAUNAK, ipuin liburua*, Ika-Ibaizabal. Zornotza 1983 (Irudia Jesse 83). Irudia herri-ipuinen bereiztasunekin lotuta dago eta korore lilaz ikusten dena Untzetapiku da Gorbeialderantzako zatia galduta (33.3) ipuinean kontatzen den moduan.



Untzetapikuko harri-bolak. Orozkoko "Presatxu" etxean (Aurkitu zituen: Pablo Azkoaga, Forestalista Alkartekoa. 1983.urteko uriola ostean pistak garbitzen zebilela aurkitu zituen Lezeaga aldean erreka bazterreko lupetzan. Argazkia Bittor Arbizu lagunak ateratakoa, 2006an) Gaur etxe-adornuak dira.



Untzetapikuko harribolak. Zeberioko Arkulandan daude. Untzetapikuren Zeberio partean aurkitu zituen Javier Bernaolak 1983ko uriola ostean eta argazkia Juan Manuel Idirinek aterea da.

6. ON JOSE MIGEL BARANDIARANI KONTATUTAKO LEHENENGO IPUINA. ETNO-LINGUISTIKA BIDEAN HERRIRIK HARAKO EUSKARATIK EUSKARA BATUA

6.1. Anbotoko Señorea superlegorren (25.5)

Berriemailea: Simon Goyoaga. Izatez, Zeanuriko Ipiñaburukoa. Orozkon kridu egondakoa, jarraian Arteako Seminarioan beharren eta handik Zeberioko Undurragara ezkondua. Bertan bizi izan zen hil arte. 1979ko grabaketan 77 urte zituen. Laurogeitik gora zen hil zenean. Nekazaria eta mitologia-ipuin kontatzaile-rik onena. Beronekin hasi nuen nire Etniker lana, beronen haxe mito hau kontatu eta oso garrantzitsua zela esan zidalako On Jose Migel Barandiaranek berberak, han Derioko Seminarioko Bibliotekan Bizkaiko Etniker taldearen lehenengo batzarrean.

6.2. “Anbotoko Señorea superlegorren” mitoa lau bertsiotan

6.2.1. Etnotestoa

Urigoiti azpien dan Olarten ein auri en olea. Orduen munduen es egoan fraikerik es eser. Et ´antxe arriegoan burriña edo eiteko, eta fundauen olea.

Da olea fundeu auen lekuen ifini euren itzelesko errudandi bet, egurreskoa a olea mogitako.

Asi sirian ba bearren asteko, ta ifini auri en orori t ´esin auri en mogidu esetara be. Eta baten batek esan otzela:

– Ori orori mogidu bear bosue, porsiakaso, Anbotoko Señoreagana yoan beosue konsulte bat artzean ia sela(n) mogidu leien.

Da usabak, propiedadedun bet ixingo san, da bera bildur de, errentorea agindu auen.

Eta errentorea yoan san Supilaurko kuebara Anbotoko Señoreagana, da, Anbotoko Señoreak ei auken alboan erri-sekor bat itxunde eta bera goruetan ei egoan seguru, eta:

– Ementxe nator ba.

– Ser dakastesu ba? - kontestautzela.

– Konsulte batera nator,-t ´esan otzen-: Urliek, Olarteko serak, -nausi bet isingo san, lenaokoa-, olea in dau d ´esin dau mogidu, da batonbateg konsultetako Anbotoko Señoreagas.

D ´anbotoko Señoreak esan otzen se:

– Au olau mogidutia gure bosue, urlie komentoko superiorragana soasie t ´axek esangotzue. Se ori orori suotaukosue bendesidu barik - se fraikek eta oneik autoak eta barkuek eta oneik bendesidu estire eiten?- eta orrek olorrek esin dau mogidu deabruetauko detenidute.

T ´emon otzen sagardoa, basukadea. Lenao usedioa egotesan ullesko subiak fundetan sireala iturrietan da baton batek edan auela ullia ta gusti, sera, ure, ta fundidu yakola barruen subia, aregas ulliagas da gero andik etorri sala “Jesus”

esateko usedioa, edan itorduen. A “Jesus” esan eskeitño estala formetan suberik. Balitike ori egie ixitia esta?... kontetan dire ta, gausek eta...

Eta orrepesteorrek, sagardoa edan auen da esakerea auken “Jesus”, eta esan auen “Jesus” eta itxi autzen basue.

Eta badiñotzo Señoreak:

– Au basu au eroaixu, se onegas len badauke(t) penitentziegandik, andiagotaukodas, se au basu au suk in dosu bendesidu, “Jesus” esan dosunian.

Da yoan sirian komentuko superiorragana d’etorri sen superior ori t’estolea imini, bere yantzie suntu d’asi sen bere bereinkasiñoa botaten.

Eta tu-rru-mu-tu! ikeragarrisko bategas asi sen orrenbeste egurreko errudia bueltaka.

Danak ikeratute, eta superiorrak esaten otzien: Es bildurtu, es bildurtu, es bildurtu...!

Eta askeneko burrundada bategas yoan i sen andi deabru ori eta esautzen superiorrak:

– Ikustosue? Suok lelengotan bendisidu in basinduen, bearra asi orduko, au mogidu ingo san ondo. Baye tire, oin segidu olonegas, segon da deabrue(k)t(d)etenidute.

Su, balitike orreik egiek ixitea esta? Ara, siñestu gurestituenape, an daukies ondiokarren an Olarten (Orozkon) aldibeteko olearen antigualeko serak, arriek, sinifikasiñoa antxe aukingo daurie.”

6.2.2. Bertsio etimologikoa

Urigoiti azpian dan Olarten egin eudien olea. Orduan munduan ez egoan fabrikarik ez ezer. Eta antxe arria egoan burriñea edo egiteko, eta fundadu euan olea.

Eta olea fundadu euan lekuan ifini euden itzalezko errueda andi bat, egurrezkoa a olea mobiduteko.

Asi ziran ba bearren asteko, eta ifini eudien ola ori eta ezin eudien mobidu ezertara be. Eta baten batek esan eutsela:

– Ori olori mobidu bear badozue, porsiakaso, Anbotoko Señoreagana joan bear dozue konsulta bat artzen ia zelán mobidu leian.

Eta ugazabak, propiedadedun bat izango zan, eta bera bildur eta, errentorea agindu euan.

Eta errentorea joan zan Superlegorreko kuebara Anbotoko Señoreagana, eta, Anbotoko Señoreak ei eukan alboan erri-zekor bat etzunda eta bera goruetan ei egoan seguru, eta:

– Ementxe nator ba

– Zer dakastazu ba? - kontestadu eutsala.

– Konsulta batera nator, –eta esan eutsan-: Urliak, Olarteko zerak, -nagusi bat izango zan, leenagokoa–, olea egin dau eta ezin dau mobidu, eta batenbatek konsultetako Anbotoko Señoreagaz.

Eta Anbotoko Señoreak esan eutsan ze:

– Au ola au mobidutea gura badozue, urlia komentoko superiorragana zoazie eta arexek esango deusue. Ze ori ola ori zuok daukazue bendezidu barik - ze fabrikak eta oneek autoak eta barkuak eta oneek bendezidu ez dira egiten?- Eta orrek ola orrek ezin dau mobidu deabruak dauka deteniduta.

Eta emon eutsan sagardoa, basukadea. leenago usadioa egoten zan ulezko subeak fundetan zirala iturrietan eta baten batek edan euala ulea eta guzti, zera, ura, eta fundadu jakola barruan subea, aregaz uleagaz eta gero andik etorri zala “Jesus” esateko usadioa, edan egitorduan. A “Jesus” esan ezkeitiño ez dala formetan suberik. Baleiteke ori egia izatea ezta? ...kontetan dira eta, gauzak eta...

Eta orrek beste orrek, sagardoa edan euan eta esakerea eukan “Jesus”, eta esan euan “Jesus” eta itxi eutsan basua.

Eta badiñotso Señoreak:

– Au basu au eroan egizu, ze onegaz leen badaukat penitentziagandik, andiagoak daukadaz, ze au basu au zuk egin dozu bendezidu, “Jesus” esan dozunean.

Eta joan ziran komentuko superiorragana eta etorri zan superior ori eta estolea imini, bere jantzia zertu eta asi zan bere bedekaziñoa botaten.

Eta tu-rru-mu-tu! ikaragarritzko bategaz asi zan orrenbeste egurreko errudea bueltaka.

Danak ikaratuta, eta superiorrak esaten eutsien: ez bildurtu, ez bildurtu, ez bildurtu...!

Eta azkeneko burrundada bategaz joan ei zan andik deabru ori eta esan eutsen superiorrak:

– Ikusten dozue? Zuok leenengotan bendezidu egin bazenduen, bearra asi orduko, au mobidu egingo zan ondo. Baia tira, orain segidu ola onegaz, ze egon da deabruak deteniduta.

Zu, baliteke orreek egia izatea ezta? Ara, siñestu gura ez dituenak be, an daukiez ondiokarren an Olarten (Orozkon) aldibateko olearen antigualeko zerak, arriak, signifikaziñoa antxe eukingo daudie.

6.2.3. Bizkaiera literarioa

Urigoiti azpian dan Olarten egin eben olea. Orduan munduan ez egoan fabrikarik ez ezer. Eta hantxe harria egoan burriña edo egiteko, eta fundadu eban olea.

Eta olea fundadu eban lekuan imini eben itzelezko errueda handi bat, egurrezkoa ha olea mobiduteko.

Hasi ziran ba beharren hasteko, eta imini eben ola hori eta ezin eben mobidu ezertara be. Eta baten batek esan eutsola:

– Hori ola hori mobidu behar badozue, porsiakaso, Anbotoko Señoreagana joan behar dozue konsulta bat hartzen ia zelan mobidu leikean.

Eta ugazabak, propiedadedun bat izango zan, eta bera bildur eta, errentorea agindu eban.

Eta errentorea joan zan Superlegorreko kuebara Anbotoko Señoreagana, eta, Anbotoko Señoreak ei eukan alboan herri-zekor bat etzunda eta bera goruetan ei egoan seguru, eta:

- Hementxe nator ba
- Zer dakarstazu ba? - kontestatu eutsola.
- Konsulta batera nator,-eta esan eutson-: Urliak, Olarteko zerak, -nagusi bat izango zan, lehenagokoa-, olea egin dau eta ezin dau mobidu, eta batenbatek konsultetako Anbotoko Señoreagaz.

Eta Anbotoko Señoreak esan eutson ze:

- Hau ola hau mobidutea gura badozue, urlia komentoko superiorragana zoazie eta harekek esango deusue. Ze hori ola hori zuok daukazue bendezidu barik - ze fabrikak eta honeek autoak eta barkuak eta honeek bendezidu ez dira egiten?- Eta horrek ola horrek ezin dau mobidu, deabruak dauka deteniduta.

Eta emon eutson sagardoa, basukadea. Lehenago usadioa egoten zan ulezko subeak fundetan zirala iturrietan eta baten batek edan ebala ulea eta guzti, zera, ura, eta fundadu jakola barruan subea, haregaz uleagaz eta gero handik etorri zala “Jesus” esateko usadioa, edan egite orduan. A “Jesus” esan ezkeitiño ez dala formetanuberik. Baleiteke hori egia izatea ezta? ...kontetan dira eta, gauzak eta...

Eta horrek beste horrek, sagardoa edan eban eta esakerea eukan “Jesus”, eta esan eban “Jesus” eta itxi eutson basua.

Eta badiñotso Señoreak:

- Hau basu hau eroan egizu, ze honegaz lehen badaukat penitentziagandik, handiagoak daukadaz, ze hau basu hau zuk egin dozu bendezidu, “Jesus” esan dozunean.

Eta joan ziran komentuko superiorragana eta etorri zan superior hori eta estolea imini, bere jantzia zertu eta hasi zan bere bedeinkaziñoa botaten.

Eta tu-rru-mu-tu! ikaragarritzko bategaz hasi zan horrenbeste egurreko errudea bueltaka.

Danak ikaratuta, eta superiorrak esaten eutsien: ez bildurtu, ez bildurtu, ez bildurtu...!

Eta azkeneko burrundada bategaz joan ei zan handik deabru hori eta esan eutsen superiorrak:

- Ikusten dozue? Zuok lehenengotan bendezidu egin bazenduen, beharra hasi orduko, hau mobidu egingo zan ondo. Baina tira, orain segidu ola honegaz, ze egon da deabruak deteniduta.

Zu, baliteke horreek egiak izatea ezta? Hara, sinistu gura ez dituenak be, han daukiez oraindikarren han Olarten (Orozkon) aldibateko olearen antigualeko zerak, harriak, signifikaziñoa hantxe eukiko dabe.

6.2.4. Euskara batua

Urigoiti azpian den Olarten egin zuten ola. Orduan munduan ez zegoen fabrikarik ez ezer. Eta hantxe harria zegoen burdina edo egiteko, eta fundatu zuen ola.

Eta ola fundatu zuen lekuan ipini zuten itzelezko errueda handi bat, egurrezkoa ha ola mugitzeko.

Hasi ziren ba beharren hasteko, eta ipini zuten ola hori eta ezin zuten mugitu ezertara ere. Eta baten batek esan ziola:

– Hori ola hori mugitu behar baduzue, porsiakaso, Anbotoko Señoreagana joan behar duzue kontsulta bat hartzen ia zelan mugitu litekeen.

Eta ugazabak, propietatedun bat izango zen, eta bera beldur eta, errentorea agindu zuen.

Eta errentorea joan zen Superlegorreko kobara Anbotoko Señoreagana, eta, Anbotoko Señoreak omen zeukan alboan herri-zekor bat etzanda eta bera goruetan omen zegoen seguru, eta:

– Hementxe nator ba.

– Zer dakarstazu ba? - kontestatu ziola.

– Kontsulta batera nator,-eta esan zion:- Urliak, Olarteko zerak, - nagusi bat izango zen, lehenagokoa, -, ola egin du eta ezin du mugitu, eta batenbatek konsultetako Anbotoko Señoreagaz.

Eta Anbotoko Señoreak esan zion ze:

– Hau ola hau mugitzea gura badozue, urlia komentoko superiorragana zoazte eta harekek esango dizue. Ze hori ola hori zuok daukazue bendezidu barik - ze fabrikak eta hauek autoak eta barkuak eta hauek bendezidu ez dira egiten?- Eta horrek ola horrek ezin du mugitu, deabruak dauka detenituta.

Eta emon zion sagardoa, basukada. Lehenago usadioa egoten zen ilezko sugeak fundetan zirela iturrietan eta baten batek edan zuela ilea eta guzti, zera, ura, eta fundatu zitzaiola barruan sugea, haregaz ileagaz eta gero handik etorri zela “Jesus” esateko usadioa, edan egite orduan. A “Jesus” esan ezkeitiño ez dela formetan sugerik. Baliteke hori egia izatea ezta? ...kontetan dira eta, gauzak eta...

Eta horrek beste horrek, sagardoa edan zuen eta esakera zeukan “Jesus”, eta esan zuen “Jesus” eta utzi zion basua.

Eta badiotso Señoreak:

– Hau basu hau eroan ezazu, ze honegaz lehen badaukat penitentziagandik, handiagoak dauzkatz, ze hau basu hau zuk egin duzu bendezidu, “Jesus” esan duzunean.

Eta joan ziren komentuko superiorragana eta etorri zen superior hori eta estolea ipini, bere jantzia zertu eta hasi zen bere bedeinkazinoa botaten.

Eta tu-rru-mu-tu! ikaragarrizko bategaz hasi zen horrenbeste egurreko errudea bueltaka.

Danak ikaratuta, eta superiorrak esaten zien: ez bildurtu, ez bildurtu, ez bildurtu...!

Eta azkeneko burrundada bategaz joan omen zen handik deabru hori eta esan zien superiorrak:

– Ikusten duzue? Zuok lehenengotan bendezidu egin bazenuten, beharra hasi orduko, hau mugitu egingo zen ondo. Baina tira, orain segitu ola honegaz, ze egon da deabruak detenituta.

Zu, baliteke horiek egiak izatea ezta? Hara, sinistu gura ez dituenak ere, han dauzkate oraindikarren han Olarten (Orozkon) aldibateko olaren antigualeko zerak, harriak, signifikazinoa hantxe eukiko dute.

7. BIBLIOGRAFIA¹

ETXEBARRIA AYESTA, J. M. *Mari Anboton eta Gorbeian*. Zornotza, Bizkaia: Ika-Ibaizabal, 1983.

–. *Basajaunak*. Zornotza, Bizkaia: Ika-Ibaizabal, 1983.

–. *Zeberio haraneko euskararen azterketa Etno-Linguistikoa*. Tesis Doctoral, Universidad de Deusto, (microfilmado: Barcelona), 1988.

–. *Zeberio haraneko euskeraren azterketa etno-Linguistikoa*. Zornotza, Bizkaia: Ibaizabal, 1991.

–. *Gabonetako ipuinak*, (euskara batuan). Zornotza, Bizkaia: Ibaizabal, 1994.

–. *Gorbeia inguruko etno-ipuin eta esaundak*. Bilbao: Labayru-Bilbao; Bizkaia Kutxa, 1995.

–. *Bizkaialdeko ipuin-esaundak*. Zornotza, Bizkaia: Ibaizabal 1995.

–. *Gure fabulak bertsoz*. Zornotza, Bizkaia: Ibaizabal, 1996.

–. *Iaun Zuria*, (euskara batuan). Zornotza, Bizkaia: Ibaizabal, 1997.

–. *Eguberri eta Gabon ipuinak*, (euskara batuan). Zornotza, Bizkaia: Ibaizabal, 1999.

–. *Zeberioko kantak*. Estella: Auspoa, 1999.

–. *Euskal urtea, ohituraz betea*. Zornotza, Bizkaia: Ibaizabal, 2003.

1. Iturri bezala, Etno-Linguistika bidetik argitaratutako neure liburu batzuk aipatuko ditut herri jakintzaren aberastasunaren ezaugarri.